

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### AIARAKO KUADRILLA

#### Praktiketako funtzionarioak izendatzea

2024ko abenduaren 24an, berdintasun-teknikariaren plaza betetzeko hautaketa-prozesua amaitu ostean, 20/2021 Legearen 2.1 artikulua onduzko iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko salbuespenezko deialdiaren esparruan egiturazko plaza hutsak lehiaketa-oposizio bidez betetzeko praktiketako funtzionarioen izendapena onetsi eta argitaratu da Aiarako Kuadrillako ediktuen-taulan.

Hori guztia bat etorri 2022ko abenduaren 21eko ALHAOn (146. zk.) argitaratutako aldi baterako enplegua egonkortzeko hautaketa-prozesuak arautzen dituzten oinarri orokorrekin eta 2024ko maiatzaren 8ko BOEn (112. zk.) argitaratutako deialdiaren laburpenarekin.

Aztertu dira lanpostuak hornitzeko deitutako lehiaketa-oposizioa epaitu duen kalifikazio-epaimahiak proposatutako behin betiko sailkapenak eta hautagaien aurkeztutako dokumentazioa.

Presidentearen dekretuen arabera, praktiketako funtzionario hau izendatu da eta Aiarako Kuadrillako lanpostu honi atxiki zaio:

PLAZA	TALDEA ETA AZPIT.	ESKALA, AZPIESKALA ETA KLASEA	PRAKTIKETA FUNTZIONARIO IZENDATUTAKO PERTSONA	NAN ZK.	PUNTUAZIO ETA PROPOSAMENARI BURUZKO DEKRETUA	IZENDAPENARI BURUZKO DEKRETUA	PRAKTIKAK
Berdintasun-teknikaria	A1	Administrazio Bereziko eskala, teknikari azpieskala	Miren Agurtzane Urresti Azpiri	**8699***	154/2024	163/2024	6 hilabete

Praktikaldia amaitu bitartean, plazaren atxikipena behin-behinekoa izango da. Dagokion taldeari dagozkion soldataren eta aparteko ordainsarien baliokideak jasoko ditu, salbu eta praktiketako funtzionarioen ordainsariak finkatzen dituen otsailaren 10eko 456/1986 Errege Dekretuan aurreikusitako egoeraren bat gertatzen bada. A taldearentzat 6 hilabeteko praktikaldia aurreikusten da, 18. oinarrian ezarritakoaren arabera.

Izendapen horrek ondorio administratiboak izango ditu 2024ko abenduaren 31etik aurrera.

Praktikaldia amaitu eta gauditu ondoren, karrerako funtzionario izendatuko da eta izendapena ALHAOn eta lege ezarritako beste edozein lekutan argitaratuko da.

Funtzionario izendatutako hautagaiak hilabeteko epea izango du, izendapena ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik hasita, lege ezarritako zina edo promesa egiteko eta karguaz jabetzeko.

Publizitate-ondorioetarako, dekretuak osorik argitaratu dira Aiarako Kuadrillako ediktu-taulan eta webgunean ([www.cuadrilladeayala.eus](http://www.cuadrilladeayala.eus)), eta interesdunari jakinarazi zaizkio.

Dekretu horien aurka berraztertze errekurtsoa jarri ahal izango da hilabeteko epean. Epe hori amaitutakoan, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa bakarrik jar daiteke, hargatik eragotzi gabe egoki bada berrikuspen-errekurtso berezia jartzeko aukera (Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123., 124., 125. eta 126. artikulua).

Arespalditzan, 2024ko abenduaren 24an

Presidentea  
IÑIGO PINEDO VADILLO